

## **2. JARDUERA: LANDAREAREN AURKEZPENA**

Lehenengo ariketa egin ondoren, landarea aurkeztuko diegu, bi aste hauetan landareek duten garrantzia azpimarratzeko. Hortaz aparte, azalduko dugu egunero ureztatu egin behar dugula eta beti leihoa dagoen lekuan jarriko dugula eguzkiko energia hartu dezan. Honetarako, modu ordenatu batean egiteko, egunero makinista denak landarea ureztatu egingen du.

Momentu honetan haurrei landareen zainketaren inguruan dakiten guztia azaltzen utziko diegu, etxean landareak dituzten galdetuko diegu, zaintzen dituzten edo ez, gustukoak dituzten edo ez, noizbait hazi bat erein eta landararik sortu zaien... Ondoren, beraien zalantzen arabera, guk landareen inguruan zenbait gauza azalduko diegu, hala nola: nola zaindu behar diren, gure landarea zein landare mota den, etxe barruan edo kanpoan ipintzeko landarea den... eta garrantzitsua izango litzateke gure gelako landarea izango denari izen bat jartzea. Landare honentzako gelan leku apropos bat bilatuko dugu, eguzkitsua den leku bat izango da eta egunero arduradun bat izango da landarea zainduko duena. Landarea beti leku berdinean egongo da eta horrela haurrek momenturo jakingo dute landarea non dagoen.